

## **Gaurkoa proposamenik gabeko mahaia izan da**

**Gaur, bigarren greba zikloak amaituta, hezkuntza publikoko irakasleen mahai negoziatzailea burutu da.**

Hezkuntza publikoko irakasleek urtarrilean hasi eta azken hilabeteotan erakutsitako konpromiso eta indar erakustaldiek Hezkuntza Saila mugiaraztera behartu dute, beste behin ere.

Nahiz eta baliabideen inguruko ahozko proposamen bat egin, ez diete erantzuten irakasleon lan baldintzak hobetu eta ikastetxeak baliabideez hornitzeko eskaerari. Irakasleon lan baldintzak hobetzeaz gain, gure herriak dituen erronkei erantzuteko premiazkoa da aniztasunari erantzungo dioten baliabideak gehitzea, baita hezkidetzarako zein euskalduntzeko figura eta neurri berriak sortzea ere. LABentzat estrategikoak izateaz gain, ezinbestekoak dira hezkuntza publikoa indartu eta kalitatezko hezkuntza bermatzeko. Era berean, sailak egindako azken proposamenetik hona ez dira LABek egindako ekarpenak jaso, beraz, sindikatuak ez du nahikotzat jotzen.

LABek mahai negoziatzailearen deialdiaren balorazio positiboa egin arren, ez du oraindik idatzizko proposamenik jaso, eta hori ezinbestekoa dela adierazi dio Hezkuntza Sailari. Izan ere, negoziaketa burutzeko behar-beharrezkoa da idatzizko proposamen baten gainean gauzatzea. Halaber, egutegi proposamen bat helarazi du ahoz sailak, apirilaren 16ra arte luzatuko litzatekeena. LABek ondorengoa adierazi dio Administrazioari: behin eta berriz helarazi izan dizkion proposamenak aspaldidanik jasoak dituela eta negoziaketa datozen egunetan gauzatu daitekeela; horretarako, aspaldidanik eta etengabe helarazitako proposamenak aintzat hartu beharko lituzke.

Bestalde, azken proposamenetan lan zama arintzeko ordu lektiboen jaitsieran, baliabide gehigarrietan, gutxienezko %5eko soldata igoeran, gazteberritze neurrietan, ordezkoen baldintzetan, behin-behinekotasuna %5era jaistean edota lan osasunerako neurrietan aurrerapausuak egon baziren ere, LABek zehaztasun eta epeak jasotzeko ekarpenak egiten eta baita lan zamen jaitsieran zein soldata igoeran lanean jarraituko duela adieraziko du.

Azkenik, LABek egindako borroka eta ekarpenen ondorioz baliabideak akordio arautzailean (lan hitzarmenean) txertatzea eta mahai gainean egotea lortu badu ere, oraindik ez dira nahikoak. Bide horretatik jarraituko du gaur egun ikastetxeetan dagoen errealitateari erantzuteko hain beharrezkoak diren baliabideak lortu arte.